

GOIERRIKO LEHIAKORTASUN DIAGNOSTIKOA*

Laburpena

GOIEKI

-
- *Txosten honen osaketarako Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren laguntza jaso da*



INDIZEA

SARRERA.....	3
DATUEN BILKETA.....	4
<i>i. Adierazle makroekonomikoak.....</i>	<i>4</i>
<i>ii. Faktoreen baldintzak.....</i>	<i>5</i>
<i>iii. Estrategia eta lehiakortasunerako testuingurua.....</i>	<i>6</i>
<i>iv. Erlazionaturiko eta euskarri diren industriak.....</i>	<i>7</i>
<i>v. Eskariaren baldintzak.....</i>	<i>8</i>
ONDORIOAK	9

SARRERA

Jarraian aurkeztuko dugun Goierriko lehiakortasunaren diagnostikoan, Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren ikertzaile taldeak garaturiko Eskudal datu basean oinarrituko gara. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak lideraturiko INTERREG IIIC DEPURE programaren testuinguruan garatu zen jatorrizko ikerketa dugu eta bertatik, Euskal Autonomia Erkidegoaren gabeziak gainditzea helburu zuen eta udalerrri eta eskualdeko lehiakortasun indikatzaileak bilduko zituen datu basea osatu zen, Eskudal alegia. Hain zuzen, datu base honen ustiapenetik garatu da honako diagnostikoa.

Lehiakortasuna neurtzeko indikatzaileen aukeraketarako M.Porterren “diamante”an oinarritu ziren¹, hain zuzen, emaitza ekonomiko eta konpetitiboak optika mikroekonomikotik ulertzen direla azaltzen duena². Honen arabera, estrategiaren kalitate, enpresen eraginkortasun maila eta hauek diharduten testuinguru mikroekonomikoaren baitan egongo dira jarduera sistema horren emaitzak ere; hori dela eta, lau zatitan banatzen da indikatzaileen taldekatzea (adierazle makroekonomikoez gain laburpen honen egitura modu berean taldekatzen da), hain zuzen aipaturiko diamantearen lau aldeei erantzuten diona.

Aipaturiko lau adar horiez gain hala ere, argi dago tokiko lehiakortasunean eragiten duten eremuak gehiago ere badirela. Hain zuzen, hausnarketa horren ondorio da, datu basearen baitan eremu sozial nahiz ingurugiroa bera baloratzera garamatzana. Beti errepikatu izan den arazoa da ere, arlo hauei dagokien datu falta agerikoa dela baina nahiz eta datu falta ageri, kontuan hartzeko atalak direla argi dago. Zentzu horretan, Porterren ikuspegiak tokiko lehiakortasunaren ikerketarako tresna erabilgarria suposatzen du baina materialak ez diren aldagaiengan mugak ageri ditu. Horrela, giza kapitala, egiturazko kapitala (kapital teknologikoaz gain kudeaketa kapitala kontuan izatea esaterako) edota harremanen kapitalak argiki enpresaren lehiakortasunarengan eragingo duela baieztatu nahi dugu.

Dena dela, Goierriko egitura ekonomikoaren lehiakortasuna neurtzeko tresna oso erabilgarritzat balora genezake eta beraz, nahiz eta argia izan gainerako arloek ere garrantzia dutela, diagnostiko hau arlo ekonomikoan zentratzeko zaigu baliagarri. Hemendik, lehiakortasun aspektuetan azaleraziko ditugun egitura produktiboaren abantailetatik abiatuta, jarraitzeko estrategia bat definitzen saiatuko gara, hain zuzen abantaila horien gainean sendotasun bat eraikitzeko helburuaz.

Datuen baloraziorako eskualde arteko konparaketa metodo egokitzat jo da Orkestratik³ eta hori dela eta, ideia hau jarraituz, zenbait eskualde aukeratu ziren honetarako. Horretan, Goierriko eskualdearekiko gertutasun geografikoa (Tolosaldea eta Urola Garaiko kasuan, EUSTATEk eskualde hau Goierri kontsideratzen duenez eremu osoko datuekin alderatzen dugu gure datua), espezializazio sektoriala eta egitura ekonomikoa

¹ Porter, M. (1999) *Ser competitivo*. Ediciones Deusto, Bilbao.

² Eskala makroekonomikoari dagozkion errenta, langabezia, lan indar nahiz biztanleria bezalako datuak kalkulatu ondoren barneratzen dira Porterren ikuspegiari dagozkion atalak.

³ Orkestra, Equipo del Instituto Vasco de Competitividad (2007) *Indicadores y análisis de competitividad local en el País Vasco*. Dok. Ekonomiaz 1.

(Debagoiena, Debabarrena, Durangaldea), garapen eredu antzekotasuna (Lea Artibai) eta arazoaren tipologiaren antzekotasuna (Urola Kosta) hartu dira irizpide moduan. Hauxe gain, Donostialdeko datuak hartu dira, probintziako hiriburu eta erreferentzi izan litezkeelako eta modu berean, gainontzeko lurralde historikoetako datuak eta EAEko batz bestekoa batu dira.

DATUEN BILKETA

i. Adierazle makroekonomikoak

Porterren eskeman barneratzerako, adierazle makroekonomiko nagusienetan egiten dugu parada. Horrela, batez ere, jarduera produktiboak eragindako errenta mailak eta bera posible egiten duten laneku eta hemendik eratorritako langabezia eta aktibitate tasak nahiz ekoizpen sistemaren adierazle finantzario nagusienak aurkezten dira.

Honen baitan, BPG eta errenta maila positiboak ageri ditu eskualdeak, BPG per cápita 23659€-tan ezartzen delarik eta ondorioz, EAE eta gainerako eskualde gehienek zenbatekoak gailentzen dira. Hala ere, argi dago adierazle hauek azkenean eskualdean sortzen den aberastasuna eta ekoizpenari erabat lotuak agertzen direla baina horrek ez du esan nahi, aberastasun hori bertako biztanleriaren eskuetan geratu behar duenik edota eskualdeko biztanleen artean bidezko banaketa dagoenik. Zehazki, errenta erabilgarriak BPGarekiko %60a suposatzen duela kontuan izanik, eskualdean sorturiko aberastasuna zati handi batean eskualdean bertan geratzen dela aurrera genezake, zalantzarik gabe eskualde mailan datu positiboa suposatzen duena.

Ekoizpen sistemaren ekoizkortasunean gehiago sakontzeko, **okupazio, langabezia eta errentagarritasun** datuei begiratu beharrean aurkitzen gara modu berean. Zentzu horretan, Goierriko eskualdeak EAEko batezbesteko eta hiru lurralde historikoen zenbatekoen gainerako datuak ageri ditu okupazio eta langabeziari dagokionean, batez ere, gizonezkoen kasuan nabarmentzen den aldea delarik; emakumezkoen kasuan berriz, batezbestekoaren inguruan kokatzen dira zenbatekoak eta beraz, ez da proportzioa mantentzen sexu artean. Ondorioz, datu hauek eskualde mailan balorazio positiboa merezi duten moduan, sexu arteko ezberdintasun nabarmen baten igoerle izan behar gara, gizonezkoen kasuan ematen den egoera ona emakumeen kasuan errepikatzen ez delako alegia.

Bestetik, enpresen errentagarritasun ratioei begiratzen badiegu, enpresari orokorrean erreferentzia egiten dieten eta zehazki enpresa manufakturatzaileari dagozkien datuak argi ezberdintzen dira. Eskualdearen kasuan horrela, azken hauek errentagarritasun ekonomiko eta finantzario altuagoa lortzen dute (EAEko kasu orokorrean ere errepikatzen dena), kontuen arloan duten egoera ona erakutsiz. Gainerako eskualdeekiko alderaketan emaitza positiboa lortzen dela ikus genezake, saltzen den produktuarekiko marginarekin zabaltasuna agerian utziz.

ii. Faktoreen baldintzak

Kasu honetan berriz, Porterren eskemaren lehen alderdian kokatzen gara, non eskualdeko enpresa egiturak faktore produktiboen efizientzia, kalitate eta espezializaziorako aurkitzen dituen baldintzak aztertuko ditugu.

Lehenik eta behin, populazioa eta honek suposatzen duen lan indarrari erreparatu egiten badiogu, biztanle multzo handiegia ez izatearen ondotik, gainerako lurraldearen osotasunean ageri den moduan, biztanleriaren zahartzearen arazoarekin egiten dugu topo. Horrela, populazio mugatu hori dela eta agian, okupazio, aktibitate eta langabezia tasek kopuru positiboak uzten dizkigute, gainerako eskualdeekiko postu aurreratuan kokatuz zentzu honetan. Dena dela, lan eskua falta ere sumatzen hasia da jarduera industrialaren baitan, alde batetik kualifikazio nahikorik gabekoa izan daitekeen moduan, bestetik ere, populazio nahikoa ez biltzeagatik eman litekeena eta hemen ageri da hain zuzen, etorkin eta emakumeen kolektiboen integrazioak suposa dezakeen laguntza.

Heziketa maila eta honi dagokion azpiegituren atalean, eskualdeak hainbat gabezia aurkitzen ditu. Horrela, azpiegitura urritasuna horietako bat da baina argi dago ere, biztanle gutxiago biltzen dituen kasu batean aurkitzen garela eta beraz, eskualdeko kasua ez da zuzenean konparagarri. Dena dela, gainerako lurraldeetako azpiegiturarako loturan legoke landu beharreko arloa, eskualde oroko azpiegitura oro izatea bilatu baina lehen. Honen ondotik, heziketa mailan orokorrean hutsune bat antzeman liteke; alde batetik, lanbide heziketan diharduten ikasleen portzentaia baxuak ez dio eskualdearen espezializazio industrialari behar bezala erantzuten (gehiengoak bigarren mailako ikasketak ditu) eta hirugarren mailako ikasketadunak populazioaren %19.9a besterik ez dira, batez ere teknologikoki intentsiboagoak diren sektoreetarako dibertsifikazioan oztopo argia suposa dezakeena. Orokorrean horrela, kualifikazio nahikorik gabeko eskulan hau ahultasun nabaritzat balora genezake.

Dibertsifikazio eta balio erantsi altuko jardueretarako eraldaketa horrek modu berean, zailtasun bera aurkitzen du azpiegitura teknologiko eta enpresei zuzenduriko zerbitzuen gabezien aurrean. Hala ere, zentzu honetan Goierriko Berrikuntza Poloaren proiektuak laguntza argia suposa dezake garapen teknologiko eta enpresa-unibertsitate-zentro teknologiko arteko harremanen sustapenean. Aldiz, enpresei zuzenduriko zerbitzu intentsiboek oraindik gabezia bat suposatzen dute eskualdearen baitan, nahitaezko arlo bat baina gehiago, gainerako eskualdeekiko dependentzia eta hauek eskaintzen dituzten zerbitzuekiko ezjakintasun eta ondorioz, aplikazio ezan ondoriozta dezakeena.

Azkenik, jarduera industrialerako lur faltaren arazoa azpimarragarri da berriz ere; kasu honetan, lehiakortasun ekonomikoa areagotzeko bidean, garapen industrialak jardueraren zabaltzea eta ondorioz, espazio handiagoen okupazioa eska dezake, nahiz eta garapenak ez du beti, "zabaltze" horrekin eskutik joan behar. Beraz, kasu honetan aztertu beharreko arazo baten aurrean aurkitzen gara, batez ere eskualdean orokorrean jardueraren eta balio erantsi altuagoko sektoreen kanporatzea suposa baitezake.

iii. Estrategia eta lehiakortasunerako testuingurua

Nahiz eta enpresen jarduerak harreman zuzena duen eskualdeko egituraren lehiakortasun mailan, argi dago testuinguruak egiteko argia duela oztopo edo baliabideak zehazteko orduan. Horretan, atal honetan aztertzen dugun adierazleen baitan, lehiakortasun-lankidetzaren arteko erlazioan, agente arteko harremanak sustatzeko agenteen (garapen agentziak barne) papera argitara irteten da. Honez gain, lehiakortasunerako testuinguruaz gainera, arlo sozialak garrantzi berezia jasotzen du ezbairik gabe; hala ere, aipatu beharra dugu, diagnostiko honen baitan azterturiko adierazleek ez dutela eduki sozialetan gehiegi sakontzeko beta uzten eta beraz, gainerako iturrietatik aztertu beharreko arlo baten aurrean aurkitzen garela adierazi behar dugu.

Enpresa egiturari zuzenean dagokionean, batez ere mikroenpresetan oinarrituriko enpresa ehun baten aurrean gaudela ikus genezake. Nahiz eta enpleguaren gehiengoa enpresa nagusienek bildu, enpresa tipologiari begira mikroenpresak dira gehiengoa eta ezaugarri honi bere abantaila ateratzean egongo da helburua. Nahiz eta txikiaren kasuan aurrera egiteko baliabide gabezia errealitate indartsuagoa den, hauen dinamismo ahalmena garatzeko lan egitean datza xedeak. Hain zuzen, eskualdeko egituraren ezaugarri nagusienetako da enpresa nagusi edo traktore eta hauen hornitzaile nagusi diren mikroenpresen arteko alde izugarria; honen ondorio dira horrela, diagnostiko honetan nazioarteratze eta I+G arloetan lorturiko emaitzak. Gauza da, arlo hauetan lorturiko emaitza positibo (nazioarteratze mailan atzerriko enpresetan parte hartzea esaterako) eta erdibidekoak (dagoen I+G jarduera gutxia eta esportazio mailak) enpresa handi horien jarduerari dagozkiela eta beraz, ez da enpresa ehun osora zabaldu genezakeen kasua. Beraz, enpresa txikiaren dependentzia maila ahultasuna bilakatzen da zentzu honetan, non, enpresa handien presentzia izatearen abantailatik abiatuta, dependentzia hori gutxitzean ezartzen den estrategiaren zutabetako bat.

Bestetik, enpresaren lehiakortasunerako testuinguruan zuzenean eragiten duen gabezia bat, lankidetzarako erakunde faltan legoke. Hain zuzen, Goierriko eskualdean, ez da lankidetzaren edo cluster egiturarik ageri, hain zuzen, kooperaziorako kultura ezaren isla dena. Zentzu honetan, garapen agentzia, GOIEKI, ageri da egiteko hori hartzen duen agente bakar moduan; hala ere, aipatu beharrean gaude erakunde hauen dinamismo eta eraginkortasun altu batek ez duela zertan erakunde gehiagoren beharra eragiten.

Azkenik, aipatu beharreko beste emaitza batek enpresetako giza-baliabideen politikan zentratzea garrantzitsua. Honen baitan, eskualdeak ez du balio positiboegirik lortzen; izan ere, lan kontratuen behin behinekotasun altua eta langileko lan-kosten zenbateko baxuak, batez ere kostuetan oinarrituriko politika edo estrategia baten ezaugarriak ageri ditu. Argi dago, balio erantsi altuagoa bilatzen duen garapen ereduak eta lehiakorragoak izateko helburuak, berrikuntza eskatzen duela enpresa estrategiaren baitan eta beraz, heziketa jarraitua litzateke horretarako bide bat.

iv. Erlazionaturiko eta euskarri diren industriak

Jarraian aurkezten ditugun datuen baitan, Porterrek aurkezten digun diamantearen hirugarren atalari eusten diogu, non eskualdeko erlazionaturiko eta euskarri diren industriak aztertzen diren. Bide horretan, Goierriko sistema produktiboan ageri den horniduraren eraginkortasuna eta tokian kokaturik dauden eta erlazionaturiko sektoreetan lan egiten duten enpresen maila aztertzeraz gatz. Modu honetara ere, lurralde batean aurki daitezkeen cluster egiturak antzeman genitzake, azkenean enpresa arteko lotura eta harreman estua oinarri dutenak.

Aztertzen diren adierazleen baitan hala ere, aztertzen diren sektoreen baitan datuen desagregazio maila ahulak oztopo bat suposatzen du jarduera industrialaren barruan esaterako, zein jarduera gailentzen den jakiteko orduan. Honek, eskualdearen baitan gainerako ezagutzak izatea eskatzen digu beraz, eta horretarako hausnarketa beraz, diagnostiko hau egiteko erabili den datu basetik kanpo geratzen dela aurreratu nahiko genuke.

Goierriko kasuan horrela, jarduera industrialaren kontzentrazio garbia ageri da. Hain zuzen, populazioaren %45ak dihardu manufaktura sektorean, honen atzetik, merkataritza eta konponketa (%11,6a), eraikuntza (%8a) eta heziketan lan egiten dutenak (%7,2a) ezartzen direlarik. Beraz, kontzentrazioa argia da eta ahulezien alderditik, lehen ere aipaturiko enpresei zuzenduriko zerbitzuen gabezia azpimarra genezake. Modu berean, eskualdeko enplegu banaketari (bertan okupatuak eskualdekoak diren edo ez kontuan izan gabe) so eginaz, ezaugarri bera mantentze dela ikus genezake, eskualdean sorturiko enpleguaren %53,1a suposatzen duen jarduera industrial eta energetikoak. Bestetik, jardueraren banaketa sektorialaren baitan ekipo ondasunen ekoizpena gailentzen da gainerakoan aldean, produkzio kate osoaren osagarri direnekin harremana nahitaezko suertatzen delarik (ez baita ekoizpen prozesu osoa enpresa bakar baten jardueraren baitan egongo).

Horrela, kontzentrazio sektorial argi baten aurrean aurkitzen gara (batez ere sektore metal-mekanikoan zentratua kasu honetan), orokorki abantaila argi bat suposatzen duen jarduera ekonomikoaren baitan. Izan ere, espezializazio honek, jarduera horren inguruko jakintza eta baliabideak bertan izatea ondorioztatzen du, modu berean, enpresen ekoizpena eskualde bertan kokatzen diren gainerakoan jardueraren osagarri bilakatzen delarik askotan. Honek, ez bairik gabe, enpresa eta erlazionaturiko agente arteko harremanak posible egiteko aukerak ugaritzen ditu.

v. Eskariaren baldintzak

Eskariaren alderdian gure arreta jarrita, amaierako kontsumoko ondasunen eskari maila aztertzean zehazten dugu lana, gure eskualdeko biztanleria eta etxeen azterketa bidez bideratzen duguna. Aipatu Goierriko eskualdearen kasuan, jarduera industrialaren emaitzak ez duela ondasun mota honekin lotura gehiegirik eta beraz, zentzu horretan, ez dio eskari adierazgarrienari eusten azterketa honek. Gainera aztertzen ari garen eskualdearen tamaina txikiak eta esan bezala, eskualdeak jarduera industrialaren baitan bizi duen espezializazioak ez du bertako kontsumoa maila berean konparagarri izateko betarik uzten, kontsumoak ez diolarik ekoizpen sistemaren eskaintzari erantzungo. Horrela, horretarako, eskualdetik kanpoko mailara salto egin beharrean aurkitzen gara eta aztergai dugun adierazle multzoaren baitan, ezberdintasun eta muga horretaz jabetzea ezinbesteko suertatzen da.

Dena dela, azterturiko indikatzaileen inguruan, zenbait ezaugarri azpimarra genitzake, hala nola, bigarren etxebizitza duten familien kopuru baxua (%0,8a), merkatu kuota baxua gainerako eskualdeekin alderatzen badugu batez ere edota euskara hitz egiten dutenen zenbateko altua (%68a).

Hala ere, lehen aipatu bezala, zentzu honetan eta jarduera ekonomikoaren lehiakortasunaren azterketan zentratuz, jarduera honen benetako eskaria aztertea litzateke beharrezko, nahiz eta argi dagoen, jarduera hau barneraturik dagoen testuingurua osatzen duten datuak diren heinean, bere garrantzia dutenak direla.

ONDORIOAK

	INDICADOR	GOIERRI	CAPV
DESEMPEÑO COMPETITIVO	PIB per capita (€)	23659	19316
	Renta personal disponible (€)	11353	10800
	Renta personal disponible sobre PIB per capita	0,60	
	Tasa de ocupación (%)	47	43
	Tasa de ocupación: masculina (%)	61	55
	Tasa de ocupación: femenina (%)	33	32
	Tasa de actividad (%)	51	48
	Tasa de actividad: masculina (%)	64	60
	Tasa de actividad: femenina (%)	38	38
	Tasa de paro (%)	7,2	11,6
	Tasa de paro: masculina (%)	4,3	8,5
	Tasa de paro: femenina (%)	12,2	16,1
	Rentabilidad económica manufacturera (%)	5,8	5,1
	CONDICIONES DE LOS FACTORES	Índice de dependencia (%)	49
Población extranjera (%)		3,4	3,4
Ocupados en el municipio de residencia (%)		33	49
Estudiantes en su propio municipio (%)		22	46
Estudiantes de formación profesional (en % de la población)		1,2	1,4
Población ocupada >16 años con estudios terciarios (%)		19,6	25,1
Población ocupada >16 años con estudios secundarios (%)		62,4	60,5
Nº de centros preuniversitarios orientados a empresas		3	169
Nº de hectáreas creadas de suelo público para actividades económicas		29	3096
Nº de hectáreas de suelo urbanizado y urbanizable calificado para actividades económicas		356	13290
Superficie con actividades potencialmente contaminantes del suelo (%)		0,92	1,11
Nivel máximo de la red de carreteras (según categorías)		44	32
Inversión municipal media en los tres últimos años por habitante (miles de €)		1046	785
CONTEXTO PARA LA ESTRATEGIA Y LA RIVALIDAD		Empleo medio de los establecimientos	5,2
	Establecimientos <10 trabajadores (%)	92	93
	Empresas con ventas ≥ 50 millones (%)	2,0	0,9
	Empresas que participan en el capital de otra empresa (%)	39	25
	Nº de asociaciones empresariales, sectoriales o clusters	0	36
	Grado de cobertura por agencias de desarrollo local (según categorías)	100	66
	Coste laboral por empleado en empresas manufactureras de 10-49 trabaj. (miles €)	31883	30177
	Asalariados con contrato temporal (%)	30	28
	Población >16 años en cursos de formación ocupacional (%)	29	33
	Empresas manufactureras exportadoras en SABI (%)	39	42
	Empresas que participan en el capital de otra empresa en el extranjero (%)	11,9	3,8
	Población ocupada en industrias de nivel tecnológico alto (%)	0,15	0,52
	Empresas con certificación ISO 9000 (%)	2,2	1,5
	INDUSTRIAS RELACIONADAS	Población ocupada en Manufacturas (%)	45,0
Población ocupada en industrias de bienes de equipo (%)		25,2	9,6
DEMANDA	Vascoparlantes (%)	68	32

Abantailak	Ahultasunak
<ul style="list-style-type: none"> • EKOIZKORTASUN potentziala: BPG eta errenta erabilgarria • KONTZENTRAZIO ETA ESPEZIALIZAZIOA jarduera industrialean: sareen osaketa eta lankidetzarako aukerak 	<ul style="list-style-type: none"> • HEZIKETA: hirugarren mailako ikasketa, ikaskuntza jarraitua, lanescu kualifikatu falta. • AURKAKO ERREALITATEAK: enpresa nagusi-subkontratak • Lankidetzeta eta enpresa arteko nahiz gainerako agenteekiko harremanen gabezia.

Lan honetan laburtu dugun eskualde mailako diagnosiak, Goierriko eskualdeko enpresen testuingurua orokorrean aztertzeke beta izan dugu. Azkenean, jarduera industrialaren baitan “arnasten” den girotik horrela, egungo sistema ekonomikoaren baitan aurrera egiteko aukerak definitzeko gai izan beharko gara, bizirik jarraitu nahi duen errealitate baten eramaile izan nahi badugu behintzat.

Aurrera genezake eskualdeko lehiakortasun ahalmenak orain artean eta oraindik ere ezaugarri positiboak biltzen dituela orokorrean sektore industria nagusi den egitura ekonomiko baten baitan. Eskualdeko ekoizkortasun eta errenta maila altuek erakusten dute ahalmen produktibo altuko egituraren jabe dela eskualdea, modu berean, langabezia tasa baxu eta okupazio nahiz aktibitate tasa altuekin osatzen dena. Indargune horien alboan ordea, beste hainbat ahultasun identifikatzen ditugu bidean.

Modu berean, eskualdeak ageri duen lan indar kapazitate altuak, sexu arteko alde nabarmenak uzten dizkigu esan bezala. Horrela, eskualdeko hainbat sektoreen egitekoan azpimarratu izan den kalifikazio eta lanescu faltak, alde batetik, eskualdeko errealitatean barneratu berri diren etorkin eta bestetik, emakumezko lanekuaren barneratzean egiteko argia azaltzen du.

Populazioaren heziketa eta eskualdearen azpiegitura teknologiko mailak bestetik, kontuan hartu beharreko ezaugarriak ageri dituzte esan bezala. Azkenean, eskualdearen indargune garrantzitsuenetako batek industri espezializazioan datzanez, honen eskulanaren kualifikazioan eta berdintasun handiagoan lan egitea ezinbesteko bilakatzen da. Horrela, teknologikoki intentsiboak diren sektoreen garapenez gain, jarduera industrialaren lehiakortasuna bermatzeko ezinbesteko baldintza bilakatzen da lanekuaren kualifikazio nahitasuna eta era berean, honen jarraitasuna. Bide horretan, jakintzan oinarrituriko estrategietan sakondu beharra antzematen da beraz.

Bestetik, enpresa txikiaren eta nagusien arteko ezberdintasunaren errealitatea erakutsi digu berriro ere diagnostiko honek. Hain zuzen enpresa handiek erakusten duten lehiakortasun maila ezin hobeak alde handia uzten du euren hornitzaile direnekiko eta eskualdean nagusi diren mikroenpresekiko orokorrean. Modu berean, datuek lankidetzeta bultzatzeko agenteen artean, garapen agentziaren bakartasuna azpimarratu beharreko kasutzat utzi dute eta hori horrela izanik, arlo hau lantzeko

bultzada beharrezkotzat jo dugu, azkenean gabezia hori lankidetzarako kultura faltaren arrazoi baita.

Baita ere, eskualdearen baitan argitaratzen den udalerrri arteko tipologia bikoitza azpimarratu beharrean aurkitzen gara, non, gutxi gorabehera Beasain, Ordizia eta Lazkaoko udalerrien jardueratik kanpo geratzen direnek oztopo, abantaila eta orokorrean tipologia ezberdinak aurkitzen dituzte bidean. Zentzu honetan, oztopo bat baina gehiago, kontuan hartu beharreko kasu batean aurkitzen garela esan beharko genuke eta horretan, eskualdearen baitako helburuen arteko ezberdintasuna eragingo duena alegia.

Horrela, sektore metal-mekanikoaren kontzentrazioak errealitate zehatz baten ikuspegia eman digu, non nahiz eta ekoizkortasun tasa altuak bizi, etorkizunera begira heziketa jarraian eta barneratu beharreko berrikuntza dinamiketan aurkitzen du jarraitu beharreko estrategia. Bereziki, hornitzaile lanetan dirauten ETEn baitan, horien "nagusi" edo traktore direnenganako harremanak indartzetik bideratu beharko lirateke al refuerzo lehen pausoak, bertan, handienen puntako lehiakortasun maila atzetik datozenen bultzadarako pizgarri izan dadin. Azkenean handienen jakintza eta informazio masa hori, eskualdean bertan geratzean egongo da gure helburua, ahal den heinean, jakintza hori euren ekoizpena posible egiten duten hornitzaileen baitan geratzea xede izanik. Hemendik, enpresa txikiaren arazoan eta errealitatearen egoera bilduko dituen elkartzeko guneen beharra ere, nagusienekiko duten dependentziak eragindako harremanez gain, euren arteko elkarkidetzak eragin ditzakeen abantailak bultzatzea bilatuko duena alegia. Azkenean, **enpresa traktoreen bide berritzailea jarraitzeko eta merkatuak ezarritako etorkizuneko beharrei modu independenteago batean erantzuteko gai den kultura subkontratista bat lortzean legoke helburua⁴, enpresa nagusi eta hornitzaile arteko errealitate diferentzial hori ahultasun izatetik abantaila izatera irauliz.**


Hausnarketa hori eginda, behar hau eta egitura industrialaren baitan lankidetzak bultzatuko duen bidea zehaztea izango da agentziaren egitekoa, horretan, jarraian ageri dugun egitura delarik hau aurrera eramateko lehen proposamena (ikus 1.grafikoa). Honen baitan, enpresa tipologiaren baitan, alde batetik, enpresa txikiak eta handienen hornitzaile direnak edo ez biltzen dituen gunea dugu eta bestetik, enpresa nagusi direnak biltzean legoke. Bestetik, jarduera ekonomikoan parte hartzen duten eskualdeko agente ezberdinez osaturiko foroa ageri zaigu, bertan, eskualdeko enpresetako tipologiari jarraituz, enpresa kopuru zehatz bat, sindikatu nagusienetako ordezkariak, herrietako alkateak, alderdi politikoetako kideak eta eskualdeko gainerako zenbait agente biltzen dira (GATC, Goilan, etab.). Horrela, hiru gune hauek lotuko dituen agente nagusia garapen agentziaren baitan, GOIEKIren baitan datza. Horrek ez du esan nahi, aipaturiko hiru guneetako agenteak lotuko dituen gunerik ageriko ez denik, baina kasu hauek proiektu edo programa zehatzen baitan ageri dira; horrela, lankidetzak ekintza zehatzak egitura finkotik "kanpo" geratzen dira nahiz eta zeharka bada ere elkarloturik ageri. Hemen beraz, garapen agentziak bitartekari eta

⁴ "Garapen ekonomiko arrakastatsu eta sostengarri bat, lehiatzeko modu sofistikatuagoak bultzatu eta animatzeko garatzen den enpresa mikroekonomikoez osaturiko ingurunea duen hobekuntza ekonomiko jarrairako prozesua da." Porter, M. (1999) *Ser competitivo*. Ediciones Deusto, Bilbao.

dinamizatzaile papera egiten du bere, non teknikari egiteko baina, zerbitzu emailearen helburua hartzen duen batez ere.

Orokorrean horrela, eskualdearen lehiakortasun mailak orain artean ezaguturiko osasun onetik abiatuz, etorkizunera begira jartzeko orduan aldatu beharreko errealitateak ageri dira, nahitaezkoa suertatuko den trantsizioaren aurrean horren ondo ez gaudela ikusi baitugu eta faktore hauengan lan egiteak sendoago jarraitzeko beta utziko luke ezbairik gabe. Bide horretan, teknologia eskualdeko industria-kulturarekin elkarlotzen utzi behar dugu, enpresak inguru zehatz bat aurkitzeko lagundu, merkatuko lehiakortasuna lankidetzara itzuli eta gure ezaugarri eta abantaila nagusietan finkatu gure estrategia izango dena. Azkenean, abantaila horiengan eraikitako bideak egingo du garapen hori "gure" egitea (ahuleziak kontuan hartuz baina horietan gelditu gabe) eta beraz, nahiz eta garatzeko konplexua izan, transmisio erraza duten moduak eragiten dira. Honetan guztian, ezagutzaile onenak eskualdean bertan kokaturiko agenteak izango direnez, bertan bideratuko denaren eramaile nagusi bilakatzen dira⁵.

1.grafikoa. Lankidetzaren egitura jardura ekonomikoan.



GOIEKI: BITARTEKARI ETA DINAMIZATZAILE PAPERA

⁵ Lehiakortasun maila hazkunde sostengarri batetik bideratzeko orduan horrela, **politika sozialaren** garrantzia ahaztu ezineko kontzeptua dugu, biztanleriaren bizi kalitatea aspektu anitzetan oinarritzen den xedea baita eta beraz, nahiz eta oraingo honetan gure estrategiak helburu zehatz bat definitzeko bidea hartu duen (lehiakortasunarena alegia), gainerako aspektuetarako zabaltzeko bidea irekita geratzen dela gogorarazi behar dugu ere.

Ekintza hau Valora proiektuaren baitan egin da, proiektu horren finantziatorako, kostuaren %50a EGIFek eman duelarik (POPV 2007-2013).



El Fondo Social Europeo
Invierte en tu futuro



El Fondo Social Europeo
invierte en tu futuro

